

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**UPV/EHUko TALDEEK IKERKETA PROIEKTUAK
LANKIDETZAN EGITEKO LAGUNTZEN DEIALDIA**

2022



PLAN
BASQUE
UNIVERSITY
SYSTEM

ATARIKOA

Ikerketa UPV/EHUren funtsezko zeregina da, jakintza sortzaile, irakaskuntza oinarri, komunitatearenaurrerapenerakobideetak jakintzagizarteratzekobaliabidedenaldetik. Horregatik, unibertsitate honen helburu garrantzitsuenetako bat da ikerketa zientifikoa, teknikoa, humanistikoa eta artistikoagaratzea, eta ikertzaileak trebatzea. Ikertaldeak sortu eta garatu ez ezik, kalitatea, diziplinartekotasuna eta bikaintasun sareetako integrazioa bultzatzen ditu, baita beste erakunde edo enpresa batzuekin ikertalde mistoak sortu ere.

Unibertsitatearen Estatutuetan adierazten den bezala, UPV/EHUk onartu eta bermatu egiten du ikertzeko askatasuna, zientzialariek onetsitako lege eta kode deontologikoen mugen barnean. Gainera, euskara sustatzeko konpromisoa du, ikerketan eta zientziaren zabalkundean, eta berdintasunaren etagarapenerakolankidetzarenarlotko ikerketabultzatzekoa, hobeto ezagutzeko eta ulertzeko mundu osoan giza garapena eta garapen jasangarria mehatxatzen dituzten arazoak. Alde horretatik, ikerketak ekarpena egingo dio, era kontziente eta erabakigarrian, garapen jasangarrirako 2030 Agenda (Nazio Batuak, 2015) gauzatzeari.

UPV/EHUko taldeek ikerketa proiektuak lankidetzan egiteko 2022ko Laguntzen deialdi honen helburua da UPV/EHUko ikertaldeek diziplinartekotasuna handitzea, taldeen eta kanpoko beste erakunde batzuen arteko elkarlana bultzatuz, era horretan aurre egiteko garrantzi handiko baterako proposamenei, haien inpaktu eta ikusgarritasunari begira.

Helburu horretarako, 250.000 € erabiliko dira, Eusko Jaurlaritzarekin eginiko Bikaintasuneko Ikerkuntzarako Programa Kontratuaren barruko finantzaketan oinarritutako aurrekontu kredituaren arabera; zehazki, programaren ekintza honen baitan: "Lankidetzak bultzatzea UPV/EHUko hainbat jakintza arlotako ikertaldeek eta pertsonen artean, ikertaldeek diziplinartekotasuna areagotuz eta garrantzi handiko baterako proposamenei ekinez, haien inpaktua eta ikusgarritasuna lortze aldera". Kopuru hori handitu ahal izango da, unean uneko aurrekontu aukeren arabera.

Horrela, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB, aurrerantzean) onespina jaso ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak erabaki du argitaratzea UPV/EHUko ikertaldeek lankidetzan eginiko ikerketarako laguntzen deialdia (2022).

1. oinarria. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen helburua da UPV/EHUko ikertaldeek diziplinartekotasuna handitzea, taldeen eta kanpoko beste erakunde batzuen arteko elkarlana bultzatuz, era horretan aurre egiteko garrantzi handiko baterako proposamenei, haien inpaktu eta ikusgarritasunari begira.

Lankidetzan eginiko ikerketaproiektuen helburu zehatzak hauetakoren batizan behar du:

1. Europako finantzaketa duten proiektuei ekiteko balioko duten berrikuntza jarduerak sustatzea;
2. Ikertaldeek arteko elkarlana, Mugaz Gaindiko Lankidetzak Laborategiak (LTC) edo Joint Research Laboratory (JRL) bezalako egitasmoen bitartez;
3. Taldeen arteko elkarlana, Unibertsitateko Ikerketa Institutu baten barnean.

2. oinarria. DEIALDI HONEN LAGUNTZEN ONURADUN EZIN IZATEKO ARRAZIOIAK

Ezin izango dutelaguntzarikeskatuegoera hauetandauden pertsonak:

- i. Epaiirmobidezdirulaguntza publikoak jasotzeko ezintasunadutenek.
- ii. Dirulaguntzak itzultzeagatik betebeharrakeguneanez dituztenek.
- iii. Ebazpen irmo bidez eta dagozkion legeen arabera, dirulaguntzak jasotzeko ezintasuna dutenek.

Ikertalde bateko kideren bat aurretik aipatutako egoeretako batean dagoenean, haren ikertaldea ezin izango da izan deialdi honetan aurreikusitako laguntzen onuradun.

3. oinarria. ESKAERA EGITEN DUTEN TALDEEN EZAUGARRIAK

3.1. Ezinbesteko baldintza da proiektuan parte hartzea gutxienez UPV/EHUko bi ikertaldek, Euskal Unibertsitate Sistemaren laguntzen 2021eko deialdian aitortuak edo UPV/EHUren 2019, 2020 eta 2021eko deialdietan finantzatuak eta aktibo daudenak.

3.2. Ikerketa taldeek gutxienez 6 kide izango dituzte, ikertalde horietakoak; gutxienez 3 kide ikertalde bakoitzeko. Ikertaldeek ezin izango dute parte hartu deialdi honetako proiektu batean baino gehiagotan, ulerturik parte hartze hori gertatzen dela talde bateko kide batek lankidetzat proiektu batean parte hartzen duen heinean.

3.3. Ikertzaile nagusiek (IN) irakasle eta ikertzaileak izan behar dute eta honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- a. Doktore izatea.
- b. UPV/EHU arduraldi osoz aritzea.
- c. Kolektibo hauetako bateko kide izatea:
 - i. UPV/EHUri modu iraunkorrean lotutako lan kontratuduna edo funtzionarioa.
 - ii. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 23. artikuluko modalitatean kontratatutako ikertzaileak (itzal handiko ikertzaileen kontratua); UPV/EHU kontratatutako doktoratu ondoko ikertzaileak eta Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren Ramón y Cajal laguntzen onuradunak; Ikerbasque programako ikertzaileak; UPV/EHU-CSIC zentro mistoetako doktore atxikiak; irakasle atxikiak; atxikiak izan diren eta plaza iraunkor baterako akreditatuta dauden bitarteko kontratudun irakasleak.
- d. Gutxienez ikertzaile nagusietako batek kontratu harremana izango du UPV/EHUrekin, eta unibertsitateak bere gain hartuko ditu proiektuaren kudeaketa instituzionalari lotutako funtzioak (sinadura UPV/EHUren izenean, organikoaren maneiua, etab.).

3.4. Proiektuek bigarren ikertzaile nagusi bat eduki ahal izango dute, ikertzaile nagusi modura arituko den lehenak huts egiten duenerako, eta 3.3. ataleko baldintzak beteko ditu.

3.5. Talde eskatzaileetako kide ez diren baina aurrekoekin bat datorren proiektua aurkezten duten ikertzaileak sartzeko ahalko dira eskabidean.

3.6. Aldi berean eskaera batean baino gehiagotan parte hartzea: Ikertaldeko ezein kidek (ezta ikertzaile nagusiak ere) ezin izango du parte hartu aldi berean deialdi honetako eskaera batean baino gehiagotan. Ikertzaile batek aldi berean deialdi honetako bi proiektutan edo gehiagotan parte hartzen bada, proiektu horietatik kanpo geldituko da.

3.7. Ezin izango dute deialdi honetako eskaeretan parte hartu UPV/EHU ikerketa laguntzeko 2020ko deialdian (III Modalitatea, Lankidetzat Proiektuak) indarrean dagoen laguntza batean parte hartzen duten taldeek edo taldeetako kideek.

4. oinarria. LAGUNTZEN EZAUGARRIAK

4.1. Proiektuek iraungo dute 2024ko abenduaren 31 arte.

4.2. Honako hauetarako eskatu ahal izango da laguntza:

- a. Ikertzaileak kontratatuzeko laguntzak.
- b. Ohiko azpiegitura zientifikoa eta tresneria informatikoa. UPV/EHUren kontratazio eta erosketa zerbitzuaren bidez bakarrik erosi ahal izango da.

Ezin izango da azpiegitura zientifikorik erosi proiektua amaitzeko sei hilabete baino gutxiago gelditzen direnean. Epe hori igarota, epigrafe honetara bideratutako finantzaketa erretiratuko du Ikerketaren arloko Errektoreordetzak.

- c. Material suntsigarria. Proiekturako beharrezkoa bada eta behar bezala justifikatzen bada.

Atal honen barnean sartuko dira ekipamendu zientifikoaren funtzionamendutik sortutako gastu guztiak, baita ikerketako zerbitzu nagusiak (SGIker) erabiltzeak sortutakoak ere.

- d. Bidaiak eta dietak: ikerlana dela-eta egin beharreko bidaiak edo ikerketa proiektuaren emaitzak batzar zientifikoetan azaltzeko taldekideek egin beharreko joan-etorriak.

Atal honetara bideratutako kopuruek (gehienez lau astekoak izango diren egonaldi laburrak barne) lotura zuzena izango dute ikertaldearen helburuak betetzeko egin beharreko gastuarekin, eta zehatz justifikatu eta kuantifikatuko dira eskaeran. Ikertaldeak landa lana egin behar duenean (inkestak, elkarrizketak, etab), joan-etorrien kostua bidaien eta dieten atalean sartuko da. Atal honetan sartuko dira ere biltzarretan parte hartzeko bidaiek sortutako gastuak eta horietan izena emateko kuoten ordainketa.

- e. Beste gastu batzuk, aurreko partidetan aipatu ez diren kontzeptuei dagozkienak eta egoki justifikatu beharko direnak. Besteak beste: ekipamenduen konpontze eta mantentze lanak, UPV/EHUko zerbitzu zentralen mantentze kontratuetan sartzen ez direnak; proiektuari atxikitako kideen aseguru estaldura, UPV/EHU lan egiteko istripu estaldurarik ez dutenean; edo kanpoko zerbitzuen kontratazioa.

4.3. Pertsona bakoitzeko 2.000 euro eskatu ahal izango dira gehienez.

5. oinarria. PROIEKTUEN EZAUGARRIAK

5.1. Eskaeraren xedeak izan behar du proiektu proposamen bat prestatzea Europako deialdi baten barnean, Unibertsitateko Ikerketa Institutu bateko kide diren taldeen arteko lankidetzan, edo LTC edo JRL berriak sortzea edo daudenen funtzionamendua sendotzea. Kasu guztietan parte hartu behar dute gutxienez UPV/EHUko bi ikertalde, 3.1 oinarrian aipatutako deialdiren batean aitortuak.

Beraz, proposamenak izan daitezke honako bost mota hauetako batekoak (elkarren baztertzailak):

- a. Talde batek baino gehiagok proposamen bat aurkezten dute elkarlanean aritzeko Europako proiektu baten aurkezpenean. Eskaerak jaso behar ditu aurkeztu nahi den Work Programaren erreferentzia eta topic-a.
- b. Hainbat talde, Europako Horizon egitasmo batean batera parte hartzen ari direnak, UPV/EHUren koordinaziopean, laguntza gehigarri bat behar dutenak. Eskaeran adierazi behar da proiektuaren izena.
- c. Talde batek baino gehiagok proposamen bat aurkezten dute Mugaz gaidiko Lankidetzan Laborategi bat (LTC) sortzeko eta garatzeko; hau da, EAEko eta Frantziako erakundeek parte hartuko duten egitasmo bat (Bordeleko Unibertsitateak bereziki), ikerketa gai baten inguruan. Eskaeran adierazi behar da egungo LTCren edo aurreikusitako denaren izena.
- d. Talde batek baino gehiagok proposamen bat aurkezten dute Joint Research Laboratory (JRL) bat sortzeko eta garatzeko; hau da, EAEko erakundeek parte hartuko duten egitasmo bat, ikerketa gai baten inguruan. Eskaeran adierazi behar da egungo JRLren edo aurreikusitako denaren izena.
- e. Jarduerak Unibertsitateko Ikerketa Institutu batean, hainbat ikertalde aitorturen partaidetzaz. Eskaeran adierazi behar da institutuaren izena.

Lehenengo hiru kasuetan helburua partzuergoak sortzea bada ere (beste erakunde batzuek ere parte har dezaten), deialdi honetan soilik finantzatzen dira UPV/EHUko ikertaldeak.

5.2. Eskaerak ingelesez egingo dira.

6. oinarria. ESKAERAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

IRIZPIDEAK	PUNTUAK
<p>1.- Proposamenaren kalitate zientifiko-teknologikoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> Proposamenaren interesa Europar Batasunaren esparru programari edo Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planari dagokionez (10 puntu). Proposamenaren originaltasuna edo berritasuna (10 puntu). Metodologiaren egokitasuna (10 puntu). 	30
<p>2.- Ikertzaileen kalitate zientifiko-teknikoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikertzaileen curriculum (15 puntu). Baliabideak erakartzeko gaitasuna, deialdi publikoen edo I+G+b kontratuen bidez finantzatutako proiektuen bitartez (15 puntu). 	30
<p>3.- Proiektuaren bideragarritasuna:</p> <ul style="list-style-type: none"> Laneko plan bideragarri eta posibilista (10 puntu). <p>Europako proiektu proposamenen kasuan: bazkideak bilatzeko eta Europar Batasunari proiektua proposatzeko plana. LTC, JRL, onartutako Europako proiektu koordinatu edo IUI kasuan: proiektua egokitzea dagokion erakundearen estrategiara (10 puntu).</p>	20
<p>4.- Proposamenaren diziplinartekotasun maila (DM) eta inplikaturako talde kopurua.</p> <ul style="list-style-type: none"> 5 puntu emango dira parte hartzen duen ikertalde bakoitzeko, nahitaezko gutxienekotik aurrera, eta 5 puntu gehigarri taldeak diziplina desberdinetakoak badira (20 puntu gehienez). <p>Puntuak = (TALDE kop. - 2) x 5 + DM x 5. Formula horretan: DM izan daiteke 1 edo 0, kontuan izanik taldeak diziplina desberdinetakoak diren ala ez.</p>	20
BALORAZIO OROKORRA	100

Oharra:

Gainera, emakume ikertzaileak buru dituzten eskaeretan, 2 puntu gehituko zaizkio ebaluazioaren azken emaitzari.

Finantzaketa lortzeko, nahitaezkoa da 50 puntutik gorakoa izatea 1., 2. eta 3. irizpideen puntuazioen batura.

7. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEA

7.1. Eskaera aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, kontatzen hasita deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzen den egunetik.

7.2. Eskaera proiektuaren ikertzaile nagusiak egin beharko du.

7.3. Dokumentazio hau aurkeztuko da:

- a. Eskaera agiria;
 - b. Proposamenean parte hartzen duten ikertzaileen curriculumak (pdf). Curriculumak ez dira aurkeztuko paperean.
- 7.4. Aurreko atalean aipatutako dokumentuak web orri honetan deskargatu ahal izango dira: <https://www.ehu.eus/es/web/ikerkuntza>

7.5. Eskaerak aurkeztuko dira UPV/EHUko Erregistro Orokorren, gaituriko campus/ikastegiko erregistro osagarrien edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatutako prozedura baten bitartez.

8. oinarria. LAGUNTZAK KUDEATZEKO ORGANOAK

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak egingo ditu deialdi honetako laguntzen kudeaketa lanak, Ikerketaren gestioko zuzendaritzaren bidez.

9. oinarria. ESKAERAK IZAPIDETZEA ETA EBALUATZEA

9.1. Eskaerak aurkezteko epea amaitzean, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak bere web atarian argitaratuko du datu edo baldintza guztiak bete ez dituzten eskaeren zerrenda, eta eskaera bakoitzari zer falta zaion adieraziko du, interesdunek akatsa zuzen dezaten. Bost egun balioduneko epea irekiko da, zerrenda argitaratzen denetik hasita, dokumentazioa osatzeko. Epea amaituta, baztertu egingo dira akatsak zuzendu ez dituzten eskaerak.

9.2. Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen bidez baloratuko dira 6. oinarrian zehazten diren 1., 2. eta 3. irizpideak.

9.3. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak berak egingo du 4. irizpidearen balorazioa, irizpidean jasotako formula aplikatuz.

10. oinarria. ERABAKIA

10.1. IGBBk erabaki proposamena egingo du deialdi honetan aurreikusitako ebaluazio irizpideen arabera lortutako puntuazioa kontuan hartuta; hala, laguntza esleituko zaie, kreditua agortu bitartean, baloraziorik onena lortu duten proiektuei, betiere 50 puntuko muga gainditzen badute 6. oinarrian ezarritako 1., 2. eta 3. irizpideetan.

Erabaki proposamen hori Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratuko da, eta eskatzaile guztiek lortutako behin-behineko puntuazioa adierazikoda.

10.2. Eskatzaileek bost eguneko epea izango dute, gehienez eta proposamena argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, onartzen dutela edo uko egiten diotela adierazteko, edo egokitzea jotako alegazioak aurkezteko.

Alegazio horiek oinarritzeko, ikertzaile nagusiak bere proiektuaren ebaluazio txostena eskatu ahaliko du posta elektronikoz, helbide honetara zuzenduta: convocatorias.dgi@ehu.eus.

Alegazioen dokumentua UPV/EHUko Erregistro Orokorren, gaituriko campuseko/ikastegiko erregistro osagarrien edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan jasotako prozeduretakoren baten bitartez aurkeztuko da.

Adierazitako epea igaro bada alegaziorik aurkeztu gabe, behin-behineko erabaki proposamena onartutzat joko da, eta langile interesdunen alegatzeko eskubidea indarrik gabe geratu dela ulertuko da.

Ikerketaren arloko errektoreordearen erabakiaren bidez argitaratuko da ikerketaren webgunean laguntza hauek emateko erabakia, eta eskatzaile bakoitzari banako erabakia igorriko zaio.

10.3. Adierazitako banako erabakiaren aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahaliko da, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

10.4. Era berean, aipatutako erabakiaren kontra, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da, bihilabeteko epean, jakinarazpena eginetahurrengoegunetik zenbatzen hasita.

11. oinarria. LAGUNTZA ORDAINTZEKO BALDINTZAK

Deialdi honetan esleitutako laguntzak emateko, deialdiaren erabakia argitaratu ostean, deialdiaren erabakian proposaturiko finantzaketa baldintzak onartzen dituela dioen dokumentua sinatu beharko duikerketa proiektuko ikertzaile nagusiak.

12. oinarria. JARRAIPENA

12.1. Emandako laguntzen jarraipena egiteko prozedura antolatuko du Ikerketaren arloko Errektoreordetzak.

12.2. Proiektua indarrean dagoen bitartean ikerketa proiektuko taldearen osaeran edozer aldaketaegitekotan, baimena eskatu beharko zaio Ikerketarenarlokerrektoreordeari, etahark kudeatuko du dagokion erabakia. Taldean ez da bajarik onartuko, ezinbestekoa denean izan ezik.

12.3. Txostena. Laguntzaren indarraldia amaitu eta hurrengo hilabetean, lortutako emaitzak biltzen dituen txostena idatzi beharko da. Horretarako emango den inprimaki batean idatzi beharko da amaierako txosten hori, eta ikertzaile nagusiak sinatu beharko du, hura kide den saileko edo institutuko zuzendariak onespena emanda.

12.4. Ebaluazioa. Amaierako txostena entregatu ondoren, lortutako emaitzak ebaluatuko dira. Emaitzak plazaratzeko egindako argitalpenak, eta, hala dagokionean, lortutako aplikazioak, patenteak, prototipoak eta merkaturatzeko moduko bestelako produktuak izango ditu oinarri ebaluazio horrek. Europako proiektu bat aurkezten laguntzeko proposamena prestatzeko laguntzak direnean, proposatutakoa bete ote den ebaluatuko da.

12.5. Modu deszentralizatuan egindako gastuen kasuan, faktura originalak ikerketa proiektuko ikertzaile nagusiaren sailean edo institutuan artxibatuko dira. Faktura horiek eskuragarri egongo dira, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak, UPV/EHUren Barne Kontroleko Zerbitzuak, Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiaztapenen bat egin behar dutenerako, eta hala, deialdi honen kargura jasotako laguntzei buruz beren zereginen baitan eskaturiko edozer informazio eman beharko zaie.

Edonola ere, ez da fotokopiarik onartuko, jatorrizko dokumentuak galdu badira.

12.6. Proiektua gauzatzeko epearen barruan egindako gastuak bakarrik egotzi ahal izango zaizkio proiektuari; hau da, epe horretan egindako erosketak, bidaiak, lanak, eta abar.

13. oinarria. EMAITZEN ZABALKUNTZA ETA USTIAPENA

13.1. Ikerketaren ondorioz sortutako emaitza guztietan (direla patenteak, prototipoak edo erabilera ereduak) edo sortutako jakintza zabaltzeko eta ustiatzeko ekitaldi guztietan (direla ponentziak, hitzaldiak, kongresuak edo parte hartutako bestelako ekitaldi zientifikoak), UPV/EHUren filiazioa ageri beharko da, bai eta erakundearen ikusizko nortasuna ere, unibertsitateak zehaztutako baldintzetan.

13.2. Ikertzaileak zein erakundetakoak diren jasota agertzeaz gain, esker onen atalean zehaztuta ageri beharko da ikerketa hori aurrera eramateko finantzazioa eman duten erakundeen zerrenda.

13.3. Ikerketa jarduerak aurrera eramanez, potentzialki patentagarriak diren edo jabetza intelektualeko bestelako elementuen bidezko babesak jaso behar luketen emaitzak lortzen badira, emaitza horiek Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzari jakinaraziko zaizkio, beren erregistroa egin dezan, pertsonal espezializatuak horrela iritziko balio. Erregistratuz gero, UPV/EHU izango da patenteen eta jabetza intelektualaren titularrak. Asmakizunean parte hartu duten ikertzaileak asmatzaile gisa aitortuko dira.

14. oinarria. LAGUNTZA EMATEAREN BALDINTZEN ALDAKETA

14.1. Ikertaldeari laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak aldatuko balira, betiere laguntzaren xedea betetzat jo denean, edo ikertaldeak bestelako dirulaguntzarik edo laguntzarik jasoko balu beste erakunde publiko edo pribaturen batetik, bere garaian eman zen laguntzaren erabakia aldatzeko erabakia ekar lezake horrek, eta proiektuari esleitutako aurrekontua murriztea edo, hala badagokio, kentzea.

Horretarako, erabakia hartu aurretik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedaturiko administrazio prozedura burutuko da, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak proposatuta, eta haren berri emango zaio, indibidualki, ikertaldeko ikertzaile nagusiari.

14.2. Honako kasu hauetan ulertuko da dirulaguntza jasotzeko baldintzak aldatu direla:

- a. Ikerketa proiektuko ikertzaile nagusiak proiektua gauzatzeari uko egiten badio, edo proiektuko ikertzaile nagusia UPV/EHU ez den beste erakunde batera lekualdatzen bada, edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bidaltzen badute, eta horrekin arriskuan jartzen bada proiektuaren zuzendaritza eta aurreikusitako helburuak lortu ahal izatea.
- b. Ikerketa proiektu berbererako beste iturri batzuetatik finantzaketa jasotzen bada, edo beste erakunde, entitate edo zentro publiko edo pribatu batzuei ikerketa proiektu beraren aldakiak aurkezten bazaizkie behar bezala justifikatu gabe eta finantzaketa eskatzeko xedez, aldeztu aurretik Ikerketaren arloko Errektoreordetzari horren berri eman gabe.
- c. Deialdi honetako oinarriak, guztiak edo batzuk, modu larrian urratzen badira.
- d. Eskeraren datuak ezkutatu, aldatu edo moduren batera edo bestera manipulatu badira.
- e. Ikerketa proiektuetako taldeen pertsona kopurua aldatzen bada (behera eginda).
- f. Jarduera finantzatzeko xedez egindako deialdiaren barne ez dauden gastuak egiten badira, edo gastuak UPV/EHUK kontrataziorako ezarritako prozedura zentralizatuak bete gabe egiten badira.
- g. Ildo horretan, UPV/EHUK ezarritako prozedura zentralizatuetatik kanpo erosketaren bat eginez gero, laguntzaren emakida baliogabetuko da, erabili gabeko finantzaketa kenduko da eta, hala badagokio, proiektuan laguntzen duen erakundeari itzuli egin beharko zaio emandako eta une horretara arte erabili gabeko zenbatekoa.

15. oinarria. LAGUNTZEN HARTZAILEEN LEGEZKO ERANTZUKIZUNA

Deialdi honetan jasota ez dagoen guztirako, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoari jarraituko zaio; besteak beste, laguntzak itzultzeari buruzko xedapenei, eta arau hausteei eta zigorrei buruzko arauari.

Aurreko ondorioetarako, ulertuko da Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean aipatzen diren beste administrazio batzuetako organo zehatzen inguruko aurreikuspenak direla eskumen baliokideak (edo ahalik eta antzekoenak) dituen unibertsitateko organoarenak.

16. oinarria. IKERKETA JARDUEREGIN LOTURIKO IRIZPIDE ETIKOAK

16.1. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan gizakiak, gizakien lagin biologikoak eta/edo datu pertsonalak erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Adierazpenetan jasotako printzipio etikoak errespetatu (Belmont, 1979; CIOMS, 2002; Giza Genoma, UNESCO, 1997; Oviedoko Hitzarmena, 1999; eta Tokioko Adierazpena, 2004).
- Indarreko araudia bete: 14/2007 Legea, Ikerketa Biomedikoari buruzkoa; 1716/2009 Errege Dekretua, Biobankuei buruzkoa; 41/2002 Legea, Pazientearen Autonomiari buruzkoa; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa; eta 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena. Bai eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko UPV/EHUko Arautegia ere.
- Gizakiekin lotutako Ikerketetarako Etika Batzordearen (GIEB) aurretiko eta nahitaezko aldeko txostena lortu, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakiak, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoak (EHAA, 32 zk., 2014-02-17koa), jasotzen duen bezala.

16.2. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan animaliekin esperimentatu nahi bada, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Ordeztu, murriztu eta fintzeko irizpideak errespetatu, nazioartean sustatu bezala.
- Animaliekiko ikerkuntzaren arloan indarrean den araudia (53/2013 ED) bete.
- Animaliekin egiten den Esperimentaziorako Etika Batzordearen (AEEB) aldeko txostena lortu, aldeztu aurretik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakiak, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoak (EHAA, 32 zk., 2014-02-17koa), jasotzen duen bezala.
- Agintari eskudunaren baimena lortu (foru diputazioen abeltzaintza sailena).

16.3. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan agente biologikoak eta/edo genetikoki eraldatutako organismoak erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Prebentzio, zehaztasun eta informazioaren printzipioak errespetatu, giza osasuna eta ingurumena babesteari dagokionean.
- Arlo horretan indarrean den legedia bete: 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa; 664/1997 ED, langileak agente biologikoen eraginpean egotearekin lotutako arriskuetatik babesteari buruzkoa; 665/1997 ED, langileak agente kantzerigenoen eraginpean egotearekin lotutako arriskuetatik babesteari buruzkoa; 9/2003 Legea eta 178/2004 ED, genetikoki eraldatutako organismoak merkaturatzeari, nahita askatzeari eta haien erabilera konfinatua egiteari buruzkoa.
- Agente Biologikoen eta Genetikoko Eraldatutako Organismoen Ikerketetarako Etika Batzordearen (ABIEB) aldeko txostena lortu, aldeztu aurretik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakiak, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoak (EHAA, 32 zk., 2014-02-17koa), jasotzen duen bezala.

16.4. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan giza enbrioien enbor zelulekin edo haietatik eratorritako zelula lerroekin ikerketak egiteko beharrezkoa izango da hauek betetzea: 45/2003 Legea eta hari dagokion 2132/2004 ED, soberako aurre-enbrietatik eskuratutako enbor zelulekin ikerketa proiektuak egiteko baimena eskatzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituen, bai eta 09/2014 ED ere, uztailearen 4koa, giza zelulak eta ehunak emateko, lortzeko, ebaluatzeko, prozesatzeko, zaintzeko, gordetzeko eta banatzeko kalitate eta segurtasun arauak ezartzen dituen.

Horrez gain, giza jatorrikolagin biologikoak behar bezala lortzeko eta erabiltzeko, giza laginekin egindako ikerketari buruzko arau hau ere kontuan izan behar da: 1716/2011 ED, azaroaren 18koa; horren bidez, alde batetik, biomedikuntzako ikerketa egiteko xedea duten biobankuak baimentzeko oinarrizko eskakizunak ezartzen dira, bai eta biobanku horiek jarduteko oinarrizko eskakizunak ere; bestetik, giza jatorrikolagin biologikoak tratatzeko bete behar diren oinarrizko eskakizunak ezartzen dira; eta azkenik, Ikerketa Biomedikorako Erregistro Nazionalaren funtzionamendua eta antolamendua arautzen dira. 2011ko abenduaren 2ko EBO, 290. zk.

16.5. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jarduerak ezin izango dute gerrarik piztu, sustatu eta babestu, ez eta, zehatzago, armak egiteko edo merkaturatzeko enprekin zuzenean edo zeharka lan eginere.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi honen aurka, zeinak administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegiaren aurrean, hura argitaratu eta bi hilabeteko epean. Aurrekoa gorabehera, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkez dakioke Ikerketaren arloko errektoreordeari, deialdia argitaratu eta hilabeteko epean, 39/2015 Legearen 123. artikuluari jarraituta.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.

Leioan, 2022ko urriaren 5ean

Inmaculada Arostegui Madariaga
Ikerketaren Arloko Errektoreordea
Vicerrectora de Investigación